

# Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

## Alexander Selkirk, benetako Robinson

### Arrastoak

### Urdirak ere badu historia

WWW.THELOCAL.DE



Juan Fernandez uhartea (egun Txileko lurraldea). Alexander Selkirk eskoziarrak 52 hilabete eman zituen bakar-bakarrik Ozeano Bareko irlan.

HORNOS LURMUTURRA, 1704. Alexander Selkirk marinel eskoziarra *Cinque Ports* galera ingelesean ari zen lanean. Tripulazioko kide gehienak gaixorik zeuden, janaririk ez zuten ia, eta pipia kroskoa jaten ari zen. Horrenbestez, Juan Fernandez uharte haizetsuan lurerratzea erabaki zuten, atsedean hartzeko eta jakiak biltzeko. Selkirkek ontzia uzteko eta, laguntza iritsi bitartean, irlan geratzeko proposamena egin zuen. Kapitainak ezetz esan zuen eta eztabaida hain gogorra izan zen ezen galera berriro abiatu zenean eskoziarra atzean uztea erabaki baitzuten.

Ihes egitea ezinezkoa zen. Gertuen zeuden gizakiak 600 miliatara zeuden eta, tartean, Ozeano Bareko ur ez hain bareak. Selkirkek ur geza eta janaria aurkitu zituen: fokei eta ahuntzei esker proteinak lortzen zituen eta aranei esker, bitaminak. Piztiak, bereziki arratoi gogaikarriak, etsai izan zituen hasieran. Baina zenbait katu etxekotuta arratoiak urrunteaz lortu zuen eta ahuntzak, elikagai izateaz gain, kantuan eta dantzatan lagun izan omen zituen.

Irlan bakarrik geratu eta handik 52 hilabetera, *Duke* ontzi ingelesa, Woodes Rogers kapitaina buru, Juan Fernandez artxipelagora iritsi zen, piratak jazartzen ari zela. Lurreratze-ko bidean zirela, marinelak zur eta lur geratu ziren ahuntz-larruz jantzi-tako gizakia saltoka eta zuzia eskue-tan astintzen ikusi zutenean. 1709ko maiatzaren 2an, azkenean, Alexander Selkirkek lau urtez kartzela izan zuen uhartetik bizirik irtetea lortu zuen.


Oraindik urte batzuk eman behar izan zituen itsasoan, 1717an etxera, Eskoziara, itzuli arte. Marinelak uhartetik ihes egitea lortu arren, uharteak ez zion sekula ihes egin; ez zen sekula zibilizaziora berregokitu. Hala, sarri etxe inguruko muino bateko kobazulora alde egiten zuen, hainbeste gorroto izan zuen bakardadea-ren bila.

1721an hil zen, Daniel Defoe beraren bizipenetan oinarritutako *Robinson Crusoe* argitaratu eta bi urtera. Lau urteko lakeria Selkirkek jasan behar izan zuen, baina loria Rusoe fikziozko bikiarentzat izan zen.

MICHEL PASTOUREAU Erdi Aroko historian aditua gai bitxia jorratzen ari da: koloreen historia. Bere azken liburuak urdina du hizpide (*Bleu, histoire d'une couleur* jatorrizko bertsoia eta *Azul: historia de un color* kaleratu berri den gazte-lerazko itzulpena).

Greziarrek eta erromatarrek urdina baztertu egin zuten barba-koen koloretzat zutelako. Eliza katolikoak ere ez zituen luzaroan begi onez ikusi kolore biziak. Baina XIII. mendean urdirak Chartreseko katedraleko beiraterietan eztanda egin zuen (argazkian) eta Europako gorteak, batez ere Frantziakoa, kolore hau jantzi- eta ikur-erretan erabiltzen hasi ziren.

Egun, urdina europarren %50 baino gehiagoren kolore kuttuna da. Eta Pastoureau-aren ikerlanek elementu txikiak ere historia osatzen dutela erakusten dute.



FR.ACADEMIC.RU